



STEE EILAS

ORDEZKOEN AURKAKO ERASO BERRIA

Otsailaren 28an egin zen azken Planifikazio Batzorde Teknikoan EAEko erkidego autonomoko Ordezkoen Kudeaketa Araudiaren kontrako *TSJPV*-ren epaiaz berri eman zigun administrazioak.

Irmoa den (2007ko otsailaren 06an EHAAn argitaratu zen) epai honek, ikastetxe pribatuetan egindako zerbitzuei ematen zaion balioa indargabetzen du. Orain arte, zerbitzu hauei urteko 0,50 puntu ematen zitzairen, eta 2004 urtetik aurrera mugarik gabe, irakaskuntza publikoan urteko 6 puntu ematen zirelarik.

Epai honen arabera, egindako baremazioa diskriminatzailea da eta epaian bertan iradokitzen da zerbitzu hauen baremazioa LOCEren ED 334/04an (Irakaskuntza funtzio publikorako sarbidea arautzen zuen) esandakoaren arabera egin behar dela. Administrazioak beraz, urteko 3 puntu eman behar direla ulertzen du, ikastetxe publikoetan egindako zerbitzuen truke ematen denaren erdia hain zuzen.

Nahiz eta epaia irmoa izan, ondokoa argi utzi beharra dago:

Nahiz eta aipaturiko EDaz aritu, pribatuko zerbitzuak barematzeko erreferentzia bat hartu nahian, ez dago zerrenden kudeaketaren inguruko oinarritzko araudirik. Erkidego autonomo bakoitzak bere araudi propioa finkatu behar du.

Epai bertan, *TSJPV*-k aipatzen du administrazioa dela baremo berria ezartzeko eskumena daukan bakarra, hau da epaileak onartzen du ezin duela baremoa finkatu berak horretarako eskumenik ez daukalako.

Epaiaren aplikazioak eta bere atzeraeraginezko izaerak ondorio izugarri larriak ekarriko dituzte, ordezkoen zerrenden hurrenkeran aldaketak emango baitira. Honek ordezko ugariren urtez urte finkatuz joan diren lan-baldintzak anitz okerragotuko ditu eta hainbat kasutan lan-aukerak minimoen azpitik geratuko dira.

Oso kezagarria iruditzen zaigu negoziazioaren bitartez lorturiko akordioak epaitegietan behin eta berriro kolokan jartzea.

Era berean, oso larritzat jotzen dugu epai honen ondorioak urtero kolokan jar dezakeelako urte osoko lanpostua lortzea eta honek ordezkoen kolektiboan segurtasunik eza ikaragarria dakar. Ezegonkortasuna zerrenden kudeaketa sisteman ez da inorentzat onuragarria, norberarentzako ondorioak oraingo honetan batzuk zein besteak izan. Ez da ona hezkuntza sistemaren kalitaterako ezta langileentzat ere.

STEE-EILASetik argi utzi nahi dugu beti defendatu izan dugula ikastetxe publikoetan egindako zerbitzuak pribatuetan ematen direnak baino askoz gehiago balio behar dutela eta horrela jarraituko dugu egiten.

Jakin badakigu epai irmoaren aurrean gaudela eta administrazioaren erantzukizuna dela honen aplikazioa. Baina gure aldetik bide guztiak jorratuko ditugu ordezkoengan epai honek dituen ondorio kaltegarriak minimizatzeke, kontutan izanik kolektibo honen lan-baldintzak bereziki larriak direlarik.